

## FUNDATZAILE ETA ZUZENDARIA

# Lourdes Fernández

---

Arte garaikidearekin dago lotuta karreraren hasieratik, hain zuzen, Parisko Musée d'Orsay museoan hasi zenetik eta Madrilgo Marlborough galerian, DV galerian eta Donostiako Manifesta 5 Bienalean eta, duela gutxi, Arco Madrid-en jardun zuenetik. Halaber, Fundación Museo Reina Sofía erakundeko patronatukidea da.

Lourdes Fernández (Donostia-San Sebastián, 1961), Artearen Historian lizentziaduna, UBren eskutik (Universitat de Barcelona) eta masterra du Museologia eta Artearen Kritikari, UIAren eskutik (Università Internazionale dell'arte de Florencia).

Luzeegia izango litzateke urte guzti hauetan espezializazio ikastaro, hitzaldi, kongresu eta ekitaldietan egindako parte hartzeak zenbatzea, bai entzule zein irakasle bezala. Informazio xehetasun gehiago behar ez gero, sakatu [hemen](#).

30 urtetik gorako jardunbide profesionalean, kultura eta arte garaikidearekin loturiko proiektu nabarmenak zuzendu ditu. Horra hor gailenak:

Bilboko Arte eta Kultura Garaikidearen zentro den **Azkuna Zentroa/Alhóndiga Bilbao**-ko zuzendari nagusia (2012-2018). 2010ean zabaldu zen zentroa, eta horren zuzendari izan zen bitartean, oihartzun handia lortu zen nazioartean, baita aintzatespen handia ere Euskal Herriko testuinguru kultura eta artistikoan, eta herritarren inplikazio gogotsua ere.

Madrilgo Arte Garaikidearen Nazioarteko Azoka **ARCO Madrid**-eko (Espainia) zuzendari nagusia, (2005-2010). Zuzendaritzan zegoela, funtsezko aldaketak egin ziren azokaren egiturari, esaterako, arte-galeria parte hartzaileen hautaketa zorrotza ezarri zen, eta horri esker, nabarmen hobetu zen azokaren kalitatea.

**Manifesta 5** Arte Garaikidearen Europako Bienaleko zuzendaria (2002-2004). Bi urtez behin Europako hiri batean antolatzen da Bienala. 2004an, Donostian egin zen, Massimiliano Gioni eta Marta Kuma koordinatzaile izan zirela. 2018ko Manifesta 12 Palermon izan zen.

**GALERIA DV**. Galería DV arte-galeriako (Donostia/San Sebastián) zuzendaria, 1994tik 2002ra bitartean. *Diario Vasco*-k sortu zuen galeria, artista gazteak ezagutarazteko eta hirian nazioarteko artea zabaltzeko asmoz.

Arte garaikidean izandako jardunbide luzean, Lourdes Fernándezek hainbat topaketa koordinatu ditu, mahai-ingurutan parte hartu du eta hitzaldiak eman ditu eta epaimahaikide eta erakunde batzuetako kide izan da, esaterako:

**Fundación Museo Reina Sofía** fundazioaren **patronatuko kidea**. **ICOM**eko kidea (International Council of Museums. UNESCO). **Arteen Asturiasko Printze Sarietako epaimahaikidea**.